



### 3 MUSIKA

## Gorri Punk Fest-ek dantzan jarriko du Okendo plaza

Subversion X, Apurto, Ernia, Venganz eta, Obito, Mörghead eta Bar Remigio herritarrek izango dira Gorri Punk Festen. Urte bete igaro da uztailaren 25ean Enrique Cob "Gorri" gaztea hil zenetik eta lagunek Gorri Punk Fest omenaldi-kontzertua egingo diote uztailaren 28an, larunbatean. "Bere erara bere ohorezko kontzertua edo omenaldia egitea" zen helburua.

### 4-5 ERREPORTAJEA

## XVIII. Artrisau azoka arrakastatsua Santa Anakoa

Herriko zein inguruetakoa artisau ugari izan ziren atzo herrian. Guztira 54 postu jarri ziren, horietatik 11 lasarte-riatarrenak. Eguraldi onak lagunduta, jende mugimendu handia izan zen Antonio Mercero eta Okendo plazetan. Aurten gainera, David de Jorge sukaldaria omendu nahi izan zuten César Bozal laban-gileak.



# Muñoz-Baroja donostiarra garaile Lasarte-Oriako III. tenis txapelketan

Santi Lorenzo herritarra izan da txapelkunorde, 6-4 eta 7-5 galduta

Hirugarren urtez antolatuta dute aurtengoan Lasarte-Oriako Tenis Txapelketa. Uztaila hasieran ekin zioten lehiaketari, eta ostiral arratsaldean final handia eta 3. eta 4. postuak erabakitzeko partidak jokatu ziren kiroldegiko pistetan. 2012ko edizioko irabazlea Muñoz-Baroja izan da, bigarren, 2010. urtean ere bera gailendu baitzen. Hirugarren postua berriz, Raul Ramosek erdietsi zuen Abel Hernandezen aurka partidu luze eta gogor bat jokatu ostean.

**E**tengabe goranzko joera darama tenisa herrian. Horren erakusgarri aurtengo txapelketan izena eman duten tenislariak erakutsitako maila txukuna.

Santi Lorenzo herritarra gertu ibili den arren, eta aurtengo garailea Muñoz-Baroja izan da, merezimendu osoz gainera.

### Final bizia eta estua

Lorenzo herritarrek gogor ekin zion finalari, era ikusgarrian, baina Muñoz-Barojak lehen set-a irabazi zuen "break" bat egin ostean.

Bigarren set-ean, Muñoz-Baroja moralez gainezka zela eta Lorenzo arreata galduta, 4-1 aurreratzea lortu zuen donostiarrak. Halere, Lorenzok ez



2012ko saridunak (irabazlea behean urdinez), Pablo Barrio alkatea, Taxio Arrizabalaga zinegotzia eta antolatzaileak alboan dituztela.

zuen azken hitza esan oraindik, eta 4-4 jarri ziren.

Set-a tie-break bidez erabakiko zela zirudienean, Muñoz-Barojak sakea hautsi zion Lorenzori eta 7-5 nagusitu zen set-a, partidua eta txapelketa eskuratu.

### 3. postua Ramosentzat

Finala bezain interesgarria izan zen 3. eta 4. postuak erabakitzeko partidua. Azken emaitza, 6-4 / 4-6 eta 7-5 izan zen Raul Ramosen alde. Bi ordu eta erdiko partidu luze, gogor eta lehiatua jokatu zuten Hernandez eta Ramosek.

Hernandez elgoibartarra hirugarren setean 2-5 aurretik jarri bazen ere, ezin izan zuen partidua itxi eta azken

unean Ramosek bere aukera apurretan sinetsi eta partidua irauli ahal izan zuen 7-5eko emaitzaz hirugarren set-a eta partidua irabazteko.

### Merendola eta sariak

Ostiraleko bi partiduak bukatuta, sari-banaketa egin zuten Pablo Barrio alkatea eta Taxio Arrizabalaga kirol zinegotzia bertan zirela.

Garaileak irabazi izanaren pozez eta galtzaileak gehiago ezin izanaren penaz geratu baziren ere, izerdia bota ostean indarrak errekuperatzeko parada eduki zuten. Izan ere, merendola eder bat egin baitzuten ikusle, tenislari eta antolatzaileek, denek batera.

Hori gutxi balitz, ikusle, jokalarik eta pilota-jasotzaileen

artein erraketak, bixerak, tenis-pilota poteak, koloniak, irrati-aparailua eta oro har, tenisarekin zerikusia duen materiala zozkatu zuten bi partiduak amaitzean. Bat baino gehiago irribarre zabalarekin joan zen etxera opariak eskutan hartuta.

### Antolatzaileak gustura

Alex Zubizarretak eskerrak eman nahi izan zizkien txapelketan parte-hartu duten tenislari guztiei, partiduak ikustera hurbildu den jendeari eta txapelketa ekonomikoki sostengatu duten hainbat enpresa eta marka pribatari.

Hurrengo urtean berriro ere txapelketa antolatzeko "gogo eta ilusioz" mintzatu ziren antolatzaileak.

**ELECTRICIDAD ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)

Orain sukaldeko tresneria salgai!



## Adituak dio



## Nekane Sagardia

**B**azen behin Usurbildik Lasartera etorritako gizon on bat. Gizon horrek Manuel zuen izena. Gure Etxea taberna hartu zuen eta izenak dioen moduan, herritarren etxea izan zedin ahalegindu zen.

Manuel kulturari lotutako gizona zen. Behin Brigidatarren komentuan sartuta harritu egin zen aldarean Santa Brigidarekin batera, Santa Ana eta San Joakin ere zeudela ikustean. Herritarren artean galdezka hasi zen ea santu hauei debozioa ote zitzairen herrian. Lehen behintzat, festa bat antolatu behar zenean santu baten babesean, omenez egiten zelako. Herritar batzuei esker jakin zuen garai batean, urtean behin, Santa Ana karkaban bi ardo zagi erretzen zirela urte hartan herriari edo herritarrei kalte egindakoak purifikatzeko.

Manuel umoretsua eta sormen handikoa, laster prestatu zuen festa. Orduan baziren herrian artista handiak eta hauekin batera parodia bat antolatu zuen urtero Santa Anaren omenez. Honetan gaizkile bikotea epaitu eta sutara kondenatzen zuten.

Guzti hau 1950. urte inguruan gertatu bazan ere, gaur egun ohitura hau mantentzen saiatzen dira herritarrek. Garai batean herritarren gozamerako ia klandestinioki antolatzen zen hura, Lasarte ez zen udalerrria, diktadura... egun herriko plazan egiten da, eguraldiak laguntzen badu behintzat. Herriko artista handiek herritarren gozamerako urtean gertatutako gora beherak parodian antzeztzen dituzte.

Eskerrik asko Manuel Sagardia, Lasartera etorritako gizon on hari eta eskerrik asko egun, ohitura mantentzen ahalegintzen zareten guztioi.

## Bizitza luzea parodiari

**S**anta Ana eguneko parodia ikusteko aukera izango dugu Okendon ostegunean. Urtean zehar herriari gertatutakoak oholza gainean ikusi ahal izango ditugu hainbat herritarrek dotore antzeztuta.

Bixia da egun ez dagoela parodia honen sorreraren berri. Erdi Aroan herriko plazetan antzeztzen ziren komediekin antzekotasun gehiago du Lasarte-Oriako parodiak antzerkiekin baino hainbat ezaugarri tarteko. Izan ere, epai-keta bat taularatzen da eta bertan dira beti pertsonaia berdina epailea, akusatua, lekukoak, mikelteak, San Joakin eta Santa Ana, deabruak etab. Asko dira umore eta kritika uztartuz jorratzen diren gaiak eta pentsa zitekeen moduan, krisiak noski lekua izango du aurtengoan ere.

Nekane Sagardiak ondo azaltzen duen moduan, parodia Manuel Sagardiak berreskuratu zuen 1950. hamarkadan hainbat herritarren laguntzarekin. Dirudienez 1946. urtetik egiten da Santa Ana eguneko parodia baina jasotako lehen kartela 1952. urtekoa da. Manuel Lekuonak ere bere idatzietan aipamena egin zion herriari urtero ospatzen zen antzerki berezi honi. Berreskuratu zenetik 60 urte pasa dira dagoeneko eta Ttakun Kultur elkarteak da ardura, udalarekin batera, honen bizitza luzea izan dadin.

Aipamen berezia egin behar zaio lerro hauetan aurten parodiak omenduko duen elkarteari ere, Danok-Kideri. Bere irribildetaz luzean herriari egin duen lan ona aitortuko zaio oholza gainean.

## Hitz eta pitz

## Zer iruditzen zaizu Santa Ana eguneko parodia?



## Joxe Zapirain

Aspaldian ez naiz parodia ikustera joan, zahartu egin naizelako, berandu xamar izaten da. Gazteak ginela, bai, polita zen, grazia eragiten zuen. Egun horretan pala partiduak ikustera joaten naiz eta igandean artisauen azokara, beti, ederra da eta nik ere eskulan asko egin ditut. Asko gustatzen zait. Mila piezako puzzleak osatu ditut eta maketak egin: Notre Dame, Taj Mahal...



## Balbi Maritxalar

Asko gustatzen zait parodia, herriko kontu eta "akatsekin" barre egiten dugu. Oso ondo egiten dute. Goizean meza eta dantzara, eta arratsaldean pala partiduak ere batzuetan bakarrik ikusi ditut. Dena den, hori nahia go dut parodia baino, askoz hobeto dago eta politagoa da herrikoak palan jokatzeko ikustea. Artisauen azoka ez dut ezagutzen, ez daukat dituzte eta gustatzen zait.



## Jon Ander Unanue

Oso gutxitan ikusi dut Santa Ana eguneko parodia. Besterik gabe, ikusi dudanean ez zait bereziki polita iruditu. Arratsaldeko pala txapelketako partiduak ere batzuetan bakarrik ikusi ditut. Dena den, hori nahia go dut parodia baino, askoz hobeto dago eta politagoa da herrikoak palan jokatzeko ikustea. Artisauen azoka ez dut ezagutzen, ez daukat dituzte eta gustatzen zait.



## Marijo Goizueta

Urtero ikusten dut, ikaragarria da. Alde batetik, komiki, urtearen eta hika mika dudanean ez zait bereziki polita iruditu. Arratsaldeko pala txapelketako partiduak ere batzuetan bakarrik ikusi ditut. Dena den, hori nahia go dut parodia baino, askoz hobeto dago eta politagoa da herrikoak palan jokatzeko ikustea. Artisauen azoka ez dut ezagutzen, ez daukat dituzte eta gustatzen zait.

## Iruditan



1952. urteko irudia da besteak beste, parodiako deabrua, mikelteak eta akusatua daude.

## Santa Ana parodia

Santa Ana eguneko parodia den parodiaren sorrerari buruz teoria ezberdinak egon arren, oraindik ez dago guztiz argi noiztik egiten den gure herriari. Dirudienez 1940-50 hamarkadan berpiztutako ekitaldia da Santa Ana parodia. 1946. urtetik egin dela dirudi nahiz eta jasota dagoen lehen kartela 1952. urteko parodiarena izan. Aintzina herriari parodia bat egiten zela entzunda, hainbat herritarrek Gure Etxeako Manuel Sagardiak bultzatuta, hau berreskuratzea erabaki zuten. Urte hauetan herriko plaza ezberdinetan antzeztu den arren, Okendo izan da parodiaren kokaleku nagusi.

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala**  
Euskara Batzordea



**EUSKO JAURLARITZA**  
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

## MUSIKA

# Punkaz gozatzeko aukera

Gorri Punk Fest izango da larunbatean Okendo plazan

2011. urteko uztailearen 25ean, Enrique Cob "Gorri" hil zen. Geroztik, urte bete igaro da eta bere lagunek uztailearen 28an, larunbatean omenaldia egingo diote. Horretarako, berak gustuko zuen musika estiloan oinarrituta jaialdia antolatu dute, Gorri Punk Fest.

Omenaldi xumea" egin nahi diote lagunek Enrique Cob "Gorri" zenari. Horregatik, larunbatean, arratsaldeko 18:00etan hsa eta gaueko 3:00ak arte iraungo duen jaialdia antolatu dute Okendo plazan.

"Gorri uztailearen 25ean hil zen eta urtea bete ostean, omenaldia egitea otu zitzaigun," azaldu digute jaialdiko antolatzaileek.

Baina omenaldiaz gain, musika jaialdia ere antolatu dute.

## Taldeak

Honela, "Gorri"-k gustuko zituen musika estiloak abiapuntu, punk-a, hard core eta rocka taldeak aukeratu dira. Izan ere, "bere erara bere ohorezko kontzertua edo omenaldia egitea" zen helburua.

Antolatzaileek adierazi digutenez, "Apurtu donostiarak, Ernia zarautzarrak, Venganza Zaragozatik, Obito eta Mörghhead Lasartetik, Subver-



Gorri Punk Fest jaialdiko kartelean taldeak eta "Gorri"-ren karikatūra ikusi daitezke.

sion X Santurtze-Bilbotik Bar Remigio Bad Religion-en bertsoak egiten dituen taldea izango dira oholztan".

Esate baterako, Subversion X taldea aukeratu dute, "berak ikusi nahi zuen azken taldea izan zelako. Azkenean ezin izan zen joan, gaur horretan hil zelako".

## Finantzaketa

Hau guztia finantzatzeko "duela bi hilabete hasi ginen kontzertuak egiten dirua lortzeko. Mogambon egin genuen bat eta bestea Grose-

ko gaztetxean. Horieta ataratakoarekin, tabernei eskatuta-koarekin, txosnan ateratzea espero dugunarekin eta egin ditugun kamisetekin finantzatu dugu," azaldu digute.

Kamisetak tabernatan jarriko dituztela eta egunean bertan Okendo jarriko duten txosnan ere erosi ahalko direla jakiteara eman digute.

Honetaz gain, antolatzaileek Okendora hurbiltzeko gonbita egin diete herritarrei, "jendea animatzea espero dugu. Herrian giroa egotea gustatuko litzaiguke".



## UDAKO TXOKOAK

### Jaialdi martxoso eta koloretsua

Ostiralean Udako Txokoetako haurrek "Gramola" jaialdia izan zuten. Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusia lepo bete zuten haur eta gurasoek.

Taula gainean, herriko haurrek ikasitako dantzak aurkeztu zituzten. Rockero piratak, rastafari reggae-roak, euskal dantzariak edo salseroak musika estilo desberdinak irudikatzen zituzten ikuskizunak gozatzeko aukera izan zen aretoan.

## UDALA

### Hondakinak sailkatzeko gida sarean

www.lasarte-oria.org webgunean hondakinak gaika sailkatzeko gida bat jarri du udalak herritarrentzat eskuragarri. Honela, Udaletik beste behin ere birziklaketaren aldeko apustua egin nahi dela azpimarratu dute, "herritarrentzako tresna erabilgarria izango den honekin".

Lasarte-Oria %36,4ko birziklaketa tasa dagoela gogoratu dute udaletik eta hau Gipuzkoako baino altuagoa den arren, Hernani eta Usurbilgo herriek duten mailatik oso urrun dagoela. Bi herri hauetan %80 birziklatzen baitute. Beraz, udaletik zer hobetu badagoela iritzita, horretarako ekimenak lagungarriak izan daitezkeela uste dute eta aurrerantzean halako tresnak sustatzearan aldeko agertuko dela dio. Webgunean sartuta eskubiko menuan agertzen diren atalen artean aurki daitezke gida hau.



### Aitor Avila kale-hezitzaileari agur esan zioten Gizarte zerbitzueta lankideek

Ostiralean herriko kale hezitzaileek Villa Mirentxun agur festa "sorpresa" egin zioten urteetan beraiekin lanean egondako Aitor Avilari. Omenalditxo egin nahi izan zioten urte hauetako lan guztia eskertzeko eta bertan izan ziren gazte asko.

Hamaiketako goxoa prestatu zioten eta lagun artean festatxo egin zuten.


Honako testu hau helarazi digute bere lankideek:

"Sekula ezagutu dugun pertsona langileena, bere lana maite duena eta gartzaren duen esku hartzean erabat sinesten duena. Bere arima, bihotza eta adimena

jarri ditu herri honetan; bereziki herri honetako gazterian eta egoera zailak eta gogorrak bizi eta pairatzen dituzten horien bizitza hobetzera pentsatuz eta jokatu. Bere bizitzako azken hamarkada bere jakintza, esperientzia, borondatea, apaltasuna eta kemena herriko gazte eta familia askoren egoera hobetzen jardun du buru-belarri.

Zure eginahal kementsu eta nekaezinari esker ona Lasarte-Oriako gazteen alde-tik, zurekin lan egiteko eta zurengandik ikasteko eta plazerra eta ohorea izan dugunongandik.

Mila esker Aitor"



"Carbon Club" tragikomedia.- Itxura polita hartu zuen ostiral gauean Okendo plazan, izan ere Markeliñe antzerki talde bizkaitarrak ikuskizun ederra eskaini zuen. Denetarik bizipenak kontatu zituen obrak, betiere meatzarien lanbide gogorra ardatz hartuta. Obra honekin, jendeak barre eta negar egin zuen aldi berean, momentu triste eta alaiak antzeztu zituzten aktoreek, eta heriotza, maitasuna, indarkeria zein cabaret-dantzak interpretatu zituzten eta ez zen piroteknia efektu ikusgarriarik falta izan. Okendora 250 bat lagun bertaratu ziren obra ikustera.



Robin Food eta Cesar Bozal, Kultura zaingozia, emakumeak guruzte-puntuan.



hona haxe zuen Antonio Mercero plaza (gnie egundian), jende ugari postuz postu ibili zen artisauren bnak ikusi, dantzu eta erosiz.

### XVIII. artisauren azoka arrakastatsua

► Guztira 54 postu jarri ziren Okendo eta Antonio Mercero plazetan banatuta, horietatik 11 herrikoak

Santa Anaren omeneko XVIII. artisauren azoka egin zen beste urte batez herrian. Aurtengo edizioan 54 postu jarri dituzte eta eguraldi ona lagun, jende asko ibili da Antonio Mercero eta Okendo plazetan herriko zein inguruko artisauren produktuk ikusi, dastatu eta erosten. Eguna amaitzean antolatzaileek balorazio "positiboa" egin zuten egunak emanadakoaren harira.

#### Jon ALTUNA BEITEGI

Jenderosua eta arrakastatsua izan da Santa Anako XVIII. Artisauren azoka. Eguraldi onak lagunak, herritar asko ibili dira Okendon zeuden artisauren eskuz egindako obrak ikusi eta erosten, edota Antonio Merceron kokatuta zeuden elkarturako artisauren produktuk dastatzten, la denek eraman zuten artisauek landutako zer edo zer erabera.

#### Sendokiren balorazioa

Ramon Omsazabal eta Antton Salsamendi Sendokik Kultur Bazarreko kideek balorazio positiboa egin zuten azokaren inguruan.

Haten hitzetan, artisauek "oso gustura" ibili dira eta garaiko egoera ekonomikoa ikusia, "asko" saldu dela diole. Tokiarekin ere ez dute inongo arazorik izan, antolatzaile eta artisauek gustura ziren bi plazak erabiltzeko



Artisauren elkarturako postuak Mercero plazan jarri ziren, eta eskulaguntzaileak, Okendon.



Santa Ana eguneko parodian umoreari izango da nagusi eta gai ezberdinek jorratuko dituzte. Berritza ere, krista izango da horietako bat.

## Santa Ana eguna ederki ospatuko da ostegunean

Guztia prest dago aurtengo Parodiaren gozatzeko

Urtero legez, uztailetaren 26an, ostegunean Santa Ana eta San Joaquin egunetan hainbat ospakizun izango dira Lasarte-Oriaiko erdigunean. Dantza eta antzerkia izango dira nagusi berritza ere. Aurtengo Parodiak Danok Kide elkarteak emenduko du, herritarren alde lan egin dituen 50 urteak direla eta.

Artisauren azoka Santa Ana eguneko ospakizunetako aurrakari izan zen. Lasarte-Oriaiko errotua da goien jai berezi hau baserri giroko leku inguruetan, ospakizunak Santa Anaren komentuaren egungo kasuan, erlijioa, euskal Kultur...



Santa Ana barikaban egundian dantza egingo dute Elkartz EDTko lagunek.

#### Txapelketa eta parodia

Arratsaldean 18:00etatik aurrera, Santa Ana palar bakoitako finalak ikusgai ibiliko dira Loidi-Barrongo pilotalekuan.

Gauko 22:30ean, ekitaldi nagusia hasiko da, parodia. Baina aurretik, antzerkian desfilera ikusi ahaliko dugu. Istei plazatik alera eta Okendora bidean erdiguneko kaleetatik barrena ibiliko dira.

Ohitura legez, parodiako antolatzaileek omenaldi xumea egingen diote herriko elkarte bati. Aurtengo 50. urte bete dituen Danok-Kide eta Gurasoen elkarteak izan da aukeratu.

Omenaldietan ostean, urtean zehar gure herrian eragingin izan duten jaien errepaso ironiko eta umoretsua egingo da.

# ANIZIAK

## JANTZI-DENDA

**ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA!**

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386

Foto deplazazioa angai pultsatuarekin

- Era ezberdinetako deplazazioak
- Aurregiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

**ESTETIKAKO ARTOA**

Uztin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Kirola, gurekin, gure estortza egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

## PILOTA.-

# Odrizola-Martin eta Etxezarreta-Bardaji Santa Ana pala txapelketako finalean

Hirugarren postua Arluziaga-Garcia eta Lizaso-Alcibar bikoteen arteko lehia erabakiko da

**Asteazken arratsaldean, XXXI Santa Ana pala txapelketako finalurreak jokatu ziren Loidi-Barrengo pilotalekuan. Hauetan finaleko txartelak jokoan ziren eta jokalariek ez zuten huts egin. Tanto ederrak eta ongi landutakoak ikusi ahal izan ziren ordu bete baino gehiago iraun zuten partidatan.**

Santa Ana txapelketak baditu finalistak, Odrizola-Martin eta Etxezarreta-Bardaji bikote dira. Finalerdietan Lizaso-Alcibar eta Arluziaga-Garcia garaitu zituzten lehengo asteazkenean eta ostegun honetan, Santa Ana egunean jokatuko dute final handia.

## Finalerdiak

Asteazkenean Loidi-Barrengo pilotalekura hurbildu ziren zaletuek norgehiagoka borrokatuak eta luzeak ikusi zituzten.

Lehenengo partidak ordu eta hoge minutuko iraupena izan zuen. Honetan Bernaitz Odrizola eta Santi Martinek

35-12 irabazi zieten Iñaki Lizaso eta Joxerra Alcibarri.

Hasieratik Odrizola eta Martin aurreratu ziren. Tanto luzeak jokatu ziren eta Lizaso eta Alcibarrek egindako akatsak errenta handizera lagundu zuten.

Partida honetan atzelarien lana azpimarratzekoa da. Ederki eusten zieten arerioen erasoei eta aurrelari laguntza ederra eman zieten.

Bigarren norgehiagokan, Iñigo Arluziagak eta Carlos Garciak finalerako txartela eramango zutelako zirudien arren, azkenean Xabier Etxezarreta eta Mikel Bardajik lortu zuten garaipena.



Tanto luzeak eta landuak ikusi ahal izan ziren XXXI. Santa Ana pala txapelketako finalerdietako bi partidatan.

Arluziaga eta Garcia partida osoan aurretik joan ziren eta partidako lehen zatian errenta mantentzea lortu zuten, 22-29.

Baina partidaren iraupean, ordu eta erdi baino gehiago iraun zuen, Arluziagaren egoera fisikoan eragin

zuen eta ezin izan zuen gehiago eman.

Ondorioz, Etxezarreta eta Bardajik partidari buelta eman eta azkenean 35-32 gailendu ziren.

## Finala

Gauzak honela, ostegunean

19:30etatik aurrera, Loidi-Barrengo pilotalekuan Odrizola-Martin eta Etxezarreta-Bardaji bikoteen arteko lehia izango da XXXI. edizioko finalean.

Aurretik, 18:00etan, Arluziaga-Garcia eta Lizaso-Alcibarrek brontzezko postua jokatuko dute.

## IGERIKETA.-

## Igerilariak Espainiako txapelketan

Azken asteburu hauetan Aigeriketako Espainiako txapelketak ari dira burutzen estatuko herrialde desberdinetan, juniorren txapelketa uztailaren 13tik 15era izan zen Mairena de Aljarafe eta infantilena Bartzelonan lehengo astean. Buruntzaldea IKT-ko Itsaso Tolosa juniorra eta Iñigo Ibarburu infantila bertan izan dira.

Kanporaketetan kaleratua izan arren, Iñigok lan ona egin zuen 50 m. libre eta 200 m. tximeleta probetan bere marka hobetu zuen eta 200 m. libreetan igerileku luzeko bere marka 5 segundutan jaitzi zuen.

100m. libreko frogan ere bere aurreko marka segundu batean hobetu zuen, 55'98 eginez. 100m tximeletako azken frogan, 1'00'96 denbora itzela egin bazuen ere, finaletik at geratu zen.

Juniorren txapelketan, berriz, Itsaso Tolosa gaztea izan zen 100 eta 200 m. bizkar proban lehiatzen. Bietan kanporaketetan izan zen kaleratua.



Ibarburu Tolosaldeako Beñat Bidaolarekin 200 m. libreko proba ostean. BURUNTZALDEA IKT

Hala ere, 100 m. bizkar proban bere serieko lehengo izan zen.

Hurrengo asteburuan, berriz, Itsaso Tolosa eta Haiz Mitxelena Terrasan izango dira maila absolutuko Espainiako txapelketan.

## Bilboko Itsas-zeharkaldia

Bestalde, Bilboko 73garren itsas zeharkaldian izan zen uztailaren 14an eta Imanol Guerra, Juanvi Martin eta Jose

Luis Sevillano masterrak izan ziren proba honetan.

Jose Luis Sevillano txapel-dun izan zen mugikortasun mugatudunen sailkapenean eta aurreko urteko marka hobetu zuen, 41 minutu eta 56 segundu.

Gainera, Juanvi Martin 5garren izan zen beterenen kategorian. Imanol Guerrak bere lehengo igeriketa zeharkaldia zuen.

## LABURRAK.-

## Iñigo Sevillano atletak zilarrezko domina lortu zuen Euskadiko txapelketan

Uztailaren 14 eta 15ean maila absolutuko Euskadiko txapelketa ospatu zen Durangon. Bertan, Real Sociedad taldeko Iñigo Sevillano eta Jose Ramon Latorre herritarrak, ISN Navarra Atletico taldekoa, izan ziren.

Iñigo Sevillanok brontzezko domina eskuratu zuen 110 m. hesi lasterketan. Ez zen kanporaketarik egon eta lasterketa bakarra egin zuten. Herritarrak 15 segundo eta 91 ehuneko egin eta hirugarren postuan amaitu zuen proba.

Jose Ramon Latorrek, aldiz, bi probatan parte hartu zuen, 100 m. eta 200 m. lasterketan. Lehengo proban kanporaketa geratu zen; 200 metroetan, berriz, finalean sartu eta zazpigarren postua lortu zuen.

## Herriko korrikalariak Santamañako lasterketan

Ostadar SKT eta herriko sei korrikalari Asteasuko Santamañako igoera lasterketan izan ziren uztailaren 15ean. Zazpi kilometrotako mendi proba honetan 80 bat partehartzailer izan ziren. Irabazlea El Hassan Qubaddi 26 minutu eta 18 segundutan igo zen Santamañako ermitara.

Herritarren artean azkarrena argazkian dagoen Jose Ignacio Elvira izan zen, 33:48 denborarekin. Gainerako herritarrek ondorengo denborak egin zituzten: Julen Ollokiegik 35:03, Juan Mari Marcosek 35:26, Iñigo Pegenautek 36:09, Edu Ormazabalek 39:22 eta azkenik, Jose Ramon Mendizabalek 41:27.



# Agenda

Osteguna 26, erdialdean



## Umorea eta jai nagusi

Ostegunean, Santa Ana eta San Joaquin eguna da. Egun hau berezia da gure herriarentzat, euskal giroa eta umorea nagusi izaten baitira. Meza, dantza eta pala partidak izango dira goiz eta arratsaldean, gauean, berri, urtean zehar gertatutakoaren berri izango dugu modu umoretsuan.

## Santa Ana eguna

**11:00etan**, meza Ama Brigitarren komentuan.  
**Ondoren**, luntxa Brigitarren plazan.  
**12:00etan**, Santa Ana karkaban agurra dantzatuko dute Erketz EDTko lagunek.  
**18:00etan**, Santa Ana pala txapelketako finalak jokatu dira Loidi-Barrengo pilotalekuan.  
**21:30ean**, Parodiako antzezleek desfilea Isla plazatik.  
**22:30ean**, omenaldia Danok-Kide elkarteari eta Santa Ana eguneko parodia.

## Lasarte-Oria

### Musika

OKENDO PLAZA

**Larunbata 28, 18:00etatik aurrera**

Gorri Punk Fest jaialdi-omenaldia izango da. Apurtu, Ernia, Venganza, Subversion X eta Obito, Mörghhead eta Bar Remigio herriko taldeak izango dira bertan.

SIGLO XX

**Larunbata 28, 23:30ean**

Trifulca Posse taldeak hip-hop eta funk saioa eskaini du, udako kultur kalea zikloaren barruan. Doan.



### Ikastaroa

ELIZATZE PLAZA

**Larunbata 28, 10:00etan**

8 eta 14 urte bitarteko gaztekoentzat tailerra egingo dute. Materialak birziklatuz egin daitezkeen gauzak ikasiko dituzte. Plastikozko botilak, tetra-bricak eta kartoiak eraman behar dituzte.

### Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

**Uztaila osoan zehar**

Estudio del Pintor marrazki eskolako ikasleen erakusketa.



### Astigarraga

#### Jaiak

ERDIALDEAN

**Larunbata 21-Larunbata 28**

Santio eta Santa Ana jaiak ospatuko

dituzte astigarragarrek.

### Zubietta

#### Jaiak

ERDIALDEAN

**Asteazkena 25-Astearte 31**

Santio jaiak ospatuko dituzte Zubietan.

**Larunbata 28**

**12:00etan**

Herri kirolak ZUBIETA VS ZABALETA (lokotxa biltzea, trontza, korrika, arto aletzea, txinga, sagar biltzea eta zaku karrera)

**23:00etan**

Triki-rock jaiak ospatuko da The Garax, Desegin eta Laiotz taldeekin.

## Herritarren txokoa

### Odola ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzek egingo dituzte Osasun Zentroan uztailaren 30an, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazena da eta odol falta dago!

### Herrira-ren elkarretarzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte har dezaten.

### Galdutako txaketa beltza

Sorgin dantzako azken entseguaren ondoren, txaketa beltz bat aurkitu zen Landaberri BHIko patioan.

Ttakan kultur elkarteko bulegora hurbildu dadila jabea txaketa hau eskuratzeko.

### Galeper ehiza uztailaren 31ean

San Ignazio egunean, uztailaren 31an, Buruntz-Azpi elkarteak galeper ehiza ekintza antolatu du Buruntz mendiko zelaietan. Galeperra kaiola

eran izango da ehiza modalitatea. Honetan parte hartzeko, uztailaren 27a baino lehen eman behar da izena elkartearen egoitzan.

Antolatzaileek ohartarazten dute parte hartzaileek agiri guztiak eguneratuak izan behar dituztela.

### Ehiza baimenak egiteko garaia

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du ehiza-baimena izan nahi duten herritarrek, elkartearen egoitzan egin dezaketela.

Horretarako astearte edo ostegunetan 19:30etik 20:30era hurbildu behar dute elkartera.

### Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, betaurreko graduatuak eta eguzkitako betaurrekoak.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikusteko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etarako ordutegian.

## Haurren txokoa

### Euskal Herriko Iñauterietako 10 pertsonaia

A	H	F	N	O	Z	Ñ	K	G	P	R	R	M	T	M
L	D	Ñ	I	D	O	W	A	N	Ñ	C	T	I	M	I
O	Z	A	A	O	T	E	O	K	Y	V	D	L	E	E
A	O	T	Z	M	G	B	R	E	M	E	A	T	N	L
G	L	K	T	F	K	X	R	Y	T	N	W	X	P	O
K	R	O	L	K	Ñ	Ñ	A	Y	X	R	J	E	R	T
A	B	T	A	W	F	F	X	X	K	N	I	K	B	X
O	V	I	M	F	A	A	O	D	B	Ñ	A	Z	A	I
X	H	L	A	C	S	B	M	L	H	R	O	T	T	N
T	N	U	Z	G	U	F	A	W	R	G	E	J	O	G
I	B	N	T	M	N	U	M	A	U	Z	S	V	R	Q
O	J	G	R	F	P	L	H	C	T	L	X	D	R	S
D	C	O	A	I	N	A	V	U	N	Y	Y	M	A	H
L	L	R	H	Z	Z	X	O	Y	R	H	E	X	K	P
A	M	R	W	U	T	H	T	W	Y	T	C	K	H	A
R	J	I	K	J	O	A	L	D	U	N	A	K	K	V
R	L	A	U	Q	I	V	N	V	B	U	K	A	N	E
E	Z	K	G	I	H	E	M	A	R	K	I	T	O	S

kokolikoko.com

Zamaltzain  
Zakuzaharrak  
Mieloxin  
Markitos  
Mamoxarroak  
Kotlungorriak  
Joaldunak  
Hartzak  
Erralditoxoak  
Atorak  
Erantzuna:

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Sasoeta-Zumaburu ikastetxea LH5 maila

Peio Fadrique Lasterkaria

# “Oso gustura noa lasterketetara”

Aurreko urteko 52 asteetan, 63 lasterketatan parte-hartu zuen Peio Fadriquek eta berriki 88 kilometroko G2H lasterketa beldurgarria bukatu du 19:13:15 denborarekin

*Normalean emaitza esanguratsuak erdiesten dituzten kirolariak izaten dira loria eta errekonozimendua jasotzen dutenak. Peio Fadrique herritarra hedabideetatik urrun ibili ohi da, itzalean, inurri langileen antzera lan eta lan, sekula gelditu gabe. Astea joan eta astea etorri Euskal Herriko txoko ezberdinetako bazterrak bisitatzen ditu lasterketa edo triatloietan parte-hartzeko aitzakiarekin, baina kirol emaitzez haratago, beste hainbat gauza baloratzen ditu Ostadarreko korrikalariak.*

Jon ALTUNA EGITEGI

Asteburu honetan bertan bi lasterketa korritu ditu Peio Fadriquek. Astigarragako herri krossa (7,2km) eta Zumaia Flysch Trail (31,2km). Halakoak izan ohi dira Fadrique nekaztaren asteburuak, ezin ukatu gizon saiatur delako.

**Nola da posible 2011n korrikalari batek 63 lasterketan parte-hartzea urteak 52 aste dituenan?**

Ba asteburuetan bitan korrika egiten eta lasterketa batzuk entrenamendu modura hartzen, ezin baita denetan topera joan txiki-txiki eginda bukatu nahi ez baduzu behintzat.

**Non egiten dituzu lasterketak, Euskal Herrian, Estatuan...?**

Orokorrean Euskal Herrian, gehienbat Bizkaia eta Gipuzkoan, nahiz eta Euskal Herriko kanpo ere egin dudana lasterketaren bat.

**Ez al zaizu neke psikologikori pilatzen?**

Ez, normalean gustura joaten naiz, gehiago kostatzen zait entrenamendu markatuak ditudan egunetan ateratzea, serieak etab. egitea adibidez.

**Nola egiten zaio aurre hilabete honetan bertan bukatu duzun Aralar eta Aizkorri mendizerrak zeharkatzen dituen G2H 88km-ko mendi ultra-lasterketari?**

Lasterketa batzuk espeziifikoki prestatu behar dituzu. Kilometro asko dira, bakardadea, gaua... Batez ere moral asko behar da, baikorra izan behar duzu uneoro, momentu zail asko izaten dira eta etsitzeko gogo gailendu daiteke halako lasterketa luze eta gogorretan. Aurten nire denbora ordu eta erdian hobetu dut eta beno, gustura nabil oraingoz.

**Ba ala duzu lasterketa kuttunik?**

Goierriko bi handiak (G2H) eta Arratzu-Urdaibai mendi-lasterketak, Donostiako triatloia eta Behobia ezin ditut galdu eta etxekoa noski, Lasarte-Oria Bai! Kross herrikoa.

Aurten gainera, Kirolprobak-ek oparitu dizkidan 10 lasterketa aukeratu behar izan ditut... Bestalde sortzen diren karrera berriak probatzea ere gustatzen zait...

**Mendi lasterketa tekniko eta zailak nahiago dituzu? Ala errazak eta azkar egitekoak?**

Teknikoak nahiago, izan ere indar gutxi daukat hanketan, baina palan aritu izan naizenez, erreflexuak mantentzen ditut oraindik aldapa behera moldatzeko. Harri artean ibili eta saltoka aritu behar bada, hobe niretzat. Hor aurrertzen dut jendea, zati zailenetan. Hala ere proba gehienetan atzeko partean ibiltzen naiz, ez pentsa...

**Zein da zure entrenamendu gunea?**

Andatzan entrenatzen dut gehienbat, baina ez bakarrik hor. Konpletua da, pista zabalak, bide estuak, lokatz guneak, harriak... denetik daukazu, leku ona da trebatzeko. Gainera orain erosi dudana GPS berriarekin edozein lekutan ibil zaitzake galdu gabe.

**Lasterka aritzeaz gain, triatloiak ere egiten dituzu. Batez garrantziak al dira muskularkari?**

Ura-bizikleta-korrika aldaketa oso gogorak dira... Baina korrika asfaltoan bakarrik ibiliz gero, belauak lesionatzeko arriskua dago. Aldatzea ona da, mendia, bizikleta, igeriketa... txipa aldatu behar da noizbehinka, eta azkenean kirola egiten ari zarez, ez duzu sasoi galtzen.

Halere, astean hirutan igeriketa Buruntzaldea IKT taldearekin egiten dut, masterrekin.

Serioxeago entrenatzen hasi gara, izan ere askotan ez diogu igeriketari zor zaion garrantzia ematen. Kirol konplikatu da igeriketa eta bere orduak eskatzen ditu.

**Aukeratu beharko bazenu, zer duzu nahiago, mendia, igeriketa, bizikleta, asfaltoan korrika egitea...?**

Azken bolada honetan gehiago ari naiz disfrutatzen mendian, nire azken erronka gogorrenak mendian izan direlako eta hor prestatu behar izan dudalako. Triatloian ere oso gustura ibiltzen naiz, nahiago ditut luzeak, ez baitaukat explosibitatearik. Aukera gehiago ditut ondo ibiltzeko distantzia luzeetan, diesela naiz.

**Pultsometroarekin entrenatu edo konpetitzen duzu?**

Boladak izaten ditut. Ez zait gehiegi gustatzen lasterketetan begira joatea, estresa eragiten dit. Gainontzean ondo erabiltzen ikasten baduzu, zenbait entrenamendu espeziifikotan oso erabilgarria da.

**Lana eta kirola uztartzeko arazorik bai?**

Goizez egiten dut lan Donostian atezain bezala, primeran datorkit beraz ordutegia. Neguan arrabola edo iraupen eskia egiten ditut. Azken finean, barazkiekin bezala, denboraldian denboraldiko kirola egiten dut.

**Zer nolako giroa duzue Ostadar taldean?**

Nik denbora gutxi daramat, baina jende asko dabil taldean. Lasterketak egin ahala joan naiz taldekideak ezagutzen.

**Zein gomendo emango liekezu bezalako lasterkari beterrano batek, korrika egiten has-tendari?**

Nik berez denbora gutxi daramat, urte gutxi batzuk, beraz aholku asko ezin eman. Baina erronka zailgiak ez jartzea esango nieke. Lehenik eta behin mediku-azterketa egitea gomendatzen dut, nola zabil-tzan ikusteko, zure pultsazioak zein diren jakiteko, pixkanaka joatea funtsezkoa da, eta gustatzen bazaizuz aurrera. Parrandak botatzea ez dut gaizki ikusten, noiz-behinka egin behar dira.



Arg: GOIERRIKO HITZA

**“Lasterketa batean sufrimendua soilik ikusten baduzu, etxea geratzea onena. Beti dago zure gorputzarekiko erronka bat, tokiak ezagutu, jendearekin erlazionatu...”**

**Zertan eta zenbat aberasten zaitu kirolak? Merezki al du hainbeste sufrimenduk?**

Berez lasterketa batean sufrimendua bakarrik ikusten baduzu, etxea geratzea onena. Beti dago zure gorputzarekiko erronka edo motibazio bat.

**Gogorra zuretzat bakarrik ez, sende eta ingurukoek ere**

**jasan beharko dute zure zale-tasuna ezta?**

Benoa, egia da batzuetan etxean baimena behar izaten dudala lasterketetara joateko, baina oraintsu nire neska ere korrika hasi da eta gustura dabil. Gainera lasterketak goizez badira, eguerdirako etxean zaude eta eguna aprobetxatu dezakezu oraindik.